

## RAMON SAIZARBITORIAREN LEHEN ELEBERRIGINTZA

**Tesiaren egilea:** Mikel Hernández Abaitua

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

**Tesi-zuzendaria:** Iñaki Aldekoa Beitia

**Tesiaren laburpena:**

Lan honen helburua Ramon Saizarbitoriaren obraren «lehen garaia» aztertzea izan da. Garai hori 1969an hasi eta 1976an amaitu zen. Zazpi urte horietan Saizarbitoriak hiru eleberri argitaratu zituen. Horren ondoren isilune luze bat ireki zen autorearen produkzioan. Hain zuzen ere, hurrengo eleberriak ez zuen egunaren argia 1995. urte arte ikusiko. Hemeretzi urteko hutsune bat dago, beraz. Lan honen ondorioa da lehen etapa horretan idazlearen abentura literario oso zehatz bat dagoela, hiru eleberri horiek garai berean idatziak egoteagatik ez ezik bere ezaugarri eta gorabehera propioengatik ere azterketarako corpus autonomotzat hartzea justifikatzen duena.

Eleberri bakoitzaren azterketa lan sinkronikoa izan da batik bat. Hala ere, ezin izan dugu bistatik urrundu ikuspegi diakronikoa, aztertu diren eleberriak ez baitaude basamortu literarioan kokatuta. Aitzitik, Saizarbitoriaren lehen hiru obra narratiboak ondo ulertzeko nahitaezkoa da jakitea nolakoa zen panorama literarioa bai Euskal Literaturaren alorrean bai Literatura Unibertsalarenean haiek argitaratu zirenean, oso ekarpen handia egin ziotelako lehenengoari, eta asko zor diotelako bigarrenari.

Umberto Ecoren terminologiari jarraituz esan genezake Saizarbitoriaren lehen etapako abentura literarioa ondo ulertzeko beharrezkoa dela bere *intentio auctoris*a ezagutzea, bere *intentio operis*a aztertzea eta nolako *intentio lectoris*a ezagutu zuen jakitea. Hiruren artean erlazio dialogiko interesagarria dago, baina, hiru intentzio horien artean, obrari berari buruzkoa izan da garrantzitsuena tesi honetan. Horregatik, ez gara inoiz mugitu *intentio auctoris*etik edo *intentio lectoris*etik *intentio operis*era, alderantziz baizik.

Lan honi ekitean Saizarbitoriaren *intentio auctoris* batekin egiten dugu topo hasiera-hasieratik, autoreak publikoki aitortua. *Intentio auctoris* horren arabera *Nouveau Roman* literatur mugimenduaren eragin handia aurki omen daiteke Saizarbitoriaren lehen eleberrietan. *Intentio auctoris* hori oztopo handirik gabe onartu izan da *intentio lectoris* orokor baten aldetik, errazegi eta azkarregi. Are gehiago, *intentio auctoris* hori hanpatu egin da Saizarbitoriaren lehen eleberriak *Nouveau Roman* tankerakoak argi eta garbi direla esateraino. Horregatik beharrezkoa izan da azterketaren zati batean *intentio auctoris* hori Saizarbitoriaren lehen hiru eleberrietan noraino hezurramitzen den ikustea, topiko hori noraino den egia eta noraino ez, eta aldi berean ea *intentio auctoris* hori *intentio operis*arekin bat datorren ala ez, gure *intentio lectoris*aren ikuspegitik aztertuta.

Hori guztia kontuan hartuta, gure lanaren lehen urratsa *Nouveau Roman* mugimendua zertan den estudiatzea izan da (gauza gehiegi esan ohi delako beroni buruz oinarri handirik gabe); bigarren urratsa, Saizarbitoriaren lehen hiru eleberririk banan-banan sinkronikoki aztertzea (ikuspegi diakronikoa ahaztu gabe *Nouveau Roman*arekin erkatuz eta beren artean ere bai); eta, hirugarrena, zein interpretazio eta ondoriotara irits gitezkeen ikustea.

Gure *intentio lectoris*aren joera metodologikoa narratologikoa izan da, baina horrek ez du esan nahi azterketa immanente semiologikoa batera murriztu garenik. Hasieratik esan dugu irakurle esplizitua eta autore empirikoa kontuan hartzekoak direla, nahiz eta gure lanean garrantzitsuena ez izan. Hortaz, honako hau izan da eleberririk bakoitzaren azterketak izan duen egitura: azterketarako sarrera gisa obrak izan zuen harrera irakurle esplizituaren aldetik (irakurle arrunta eta irakurle kritikoa), obraren osagai narratologikoa arakatzea (historia, diskurtsoa, denbora, fokalazioa, espazioa eta pertsonaiak), eta obraren interpretazioa. Horren ostean, hiru eleberririk buruzko ondorio orokorrak jorratu dira.

Saizarbitoriaren lehen hiru eleberririk *intentio auctoris* aitortu baten bila dabiren idazle baten abentura literarioa ikusten dugu: *Nouveau Roman* tankerako eleberririk idaztea, hirugarren eleberririk bukatu arte lortzen ez duena. Horregatik guztiatik esan daiteke bere hirugarren eleberririk lortu zuela Saizarbitoriak bere *intentio auctoris* bere *intentio operisera* hurbiltzea, ez lehenago. Bere lehen garaiko *intentio auctoris* *Nouveau Romana* emulatzea izan bazen, ez zuen helburua lortu etaparen bukaera arte. Saizarbitoriak esandakoaren arabera, bere gustu literarioak, une zehatz batean, idazle existentzialista frantsesengandik *Nouveau Roman*ekoengana zabaldu ziren. Ezin da jakin zehazki noiz, baina, agian, trantsizio horretan ezin izan zuen idazle existentzialisten eragina nahi bezala gainetik kendu *EJera* iritsi arte, orduan ere existentzialismoaren arrastoa aurkitzea zaila ez den arren.

Saizarbitoriaren lehen hiru eleberririk *intentio auctoris* aitortu baten bila dabiren eta zeharo lortu gabe emeki-emeki bere helburura asko hurbiltzen den idazle baten abentura literarioa dago.

# LANGABEZIA FEMENINOA ETA MASKULINOA: GENERO-ASIMETRIA LANGABEZIAREN IRUDIKAPEN SOZIALEAN

**Tesiaren egilea:** Maider Larrañaga Egileor

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saila

**Tesi-zuzendaria:** Jose F. Valencia Garate

**Tesiaren laburpena:**

Gazteek langabeziaren inguruan duten irudikapen sozialera hurbildu gara lan honetan. Ikerketaren helburua izan da aztertzea zein den genero-asimetria iraunaraztean irudikapen sozialek jokatu duten papera. Langabezia femeninoaren eta langabezia maskulinoaren inguruko hausnarketak aukera ematen du sakon aztertzeko, batetik, espazioaren banaketa tradizionala (publikoa-lana eta pribatua-etxekolana) eta, bestetik, gizonek emakumeekiko dituzten dominaziozko harremanak.

Egun langabezia lanaren pribazio moduan ulertzen da, lana erreferentzia-puntu positibotzat hartuta. Lanak integratu eta langabeziak hondar sozialean kokatzen omen du. Maila honetan, langabezia sozialki eraikitako errealitate bat da, bere ondorio indibidual, sozial, ekonomiko eta familiarrez gain, bestelako funtzio sozialak betetzen dituena sistema ekonomiko eta soziala mantentzen. Gure kasuan, genero-harremanen azterketa interesatzen zaigu bereziki. Hain zuzen ere, Europako populazio aktiboan gero eta emakume gehiago badago ere, era berean, emakumeak bereziki kaltetuak ageri dira lan-baldintzen degradazioaren eta onartutako pobreziaren aurrean. Gizartean, dirudienez, langabeziarekiko tolerantzia maila desberdinak daude, irizpide sozial inplizituekin loturik. Irizpide horien artean, generoaren araberrako rolen banaketak egitura sozialean bi genero-kategorien arteko asimetria mantentzea du helburu; egitate hori irudikapen sozialen bidez arakatzen saiatu gara gure ikerketan.

Gazteek langabeziari buruz duten irudikapenean genero-sistemak jokatzen duen rola aztertzeko hiru populazio-lagin hartu dira: bi Frantziako estatuari lotuak (Aix-en-Provence eta Baiona-Bidarte) eta Espainiako estatuko bat (Irun). Galdesortak hainbat unibertsitate-institutu, teknologia-eskola eta lanbide-heziketako zentrotan bildu dira. Guztira, 18-25 urte bitarteko 650 ikaslek parte hartu dute (392 emakumezko eta 357 gizonezko). Irudikapenaren edukia eta egitura lantzeko, hainbat teknika erabili dira galdesortetan: «gogora ekartzea» irudikapenaren edukia aztertzeko, «karakterizazioa» langabeziari loturiko ezaugarrien hierarkizazio kolektiboan sakontzeko, «ordezkapena» sistema arauemailea aztertzeko eta «errefusapena» zenbait elementuren zentraltasuna konfirmatzeko.

Lortutako emaitzei dagokienez, kasu maskulinoa eta kasu femeninoa langabeziaren irudikapen beraren baitan kokatzen dira. Horrela, gazteek langabeziaz

duten irudikapena bat dator definizio instituzionalarekin (lanik ez duen eta lanaren bila dabilen pertsona da langabetua) eta egoera horrekin lotutako zailtasunekin, maila ekonomikoan batez ere. Baina, era berean, genero-asimetriaren ondorioz gizonen eta emakumeen langabeziaren arteko desberdintasunak nabarmentzen dira. Gizon langabetuaren kasuan, langabeziak eragin ditzakeen ondorio indibidualak azpimarratzen dira eta, gainera, egoera horrek gizonaren testuinguru hurbi-lenean, familian, eragin ditzakeen kalteak aipatzen dira, egoera horren «larritasuna» agerian utziz. Emakumeen kasuan, berriz, ondorio indibidual eta ekonomikoek indarra galtzen dute, eta emakumeak familiarekiko, etxearekiko eta seme-alabekiko duen rol tradizionala azpimarratzen da, egoera horren «abantailak» mahaigaineratuz. Langabeziaren irudikapen sozialean, beraz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialak islatzen eta mantentzen dira, familiarekiko emakumezkoen eta gizonaizkoen estereotipoak mantentzen dira eta gizarte-sistema androzentrikoa justifikatzen da.



